

Bestelako Xedapenak

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

1231

63/2010 DEKRETUA, martxoaren 2koa, José Antonio de Aguirre y Lekube jaunari Gernikako Arbolaren Gurutzea-Cruz del Árbol de Gernika goraipamena emateko dena.

José Antonio de Aguirre y Lekube jaunak -1936ko urriaren 7tik 1960ko martxoaren 22rako tartean Eusko Jaurlaritzaren lehenengo Lehendakaria izan zenak- lan handia egin du Euskadiren alde, gizarte eta politika arloan batez ere. Meritu horiek guztiak eta Euskadiri egin dion ekarpena nabarmentzearren eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2010eko martxoaren 2an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe xedatu dut:

Gernikako Arbolaren Gurutzea goraipamena ematea José Antonio de Aguirre y Lekube jaunari, Euskadiren izaera berreskuratzeko egin duen lan garrantzitsua eta politika eta gizarte alorrean duen entzutea aitortzeko.

Vitoria-Gasteizen, 2010eko martxoaren 2an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Otras Disposiciones

PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

1231

DECRETO 63/2010, de 2 de marzo, por el que se concede la distinción Gernikako Arbolaren Gurutzea-Cruz del Árbol de Gernika a D. José Antonio de Aguirre y Lekube.

En consideración a los méritos y circunstancias que concurren en la persona de D. José Antonio de Aguirre y Lekube, primer Lehendakari del Gobierno Vasco, desde el 7 de octubre de 1936 al 22 de marzo de 1960, y teniendo en cuenta su aportación y entrega personal en beneficio de Euskadi, especialmente en el ámbito social y político, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno, en reunión celebrada el día 2 de marzo de 2010.

Vengo en concederle la Gernikako Arbolaren Gurutzea-Cruz del Árbol de Gernika, en reconocimiento a sus relevantes servicios prestados a Euskadi en defensa de la restauración de su personalidad y, en general, por su labor excepcional y prestigio en el ámbito político y social.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 2 de marzo de 2010.

El Lehendakari,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.